

Gabriel Celaya

Euskaldunon Egunkaria, 1995-07-04: 2.

Gogoan dut azken aldian poeta nola ikusi nuen: balkoitik begira nengoela uda sargoriko eguzkitan zetorren hondartzatik, borobil, neke mantsoan; Anparitxu ondoan, beti bezala; eta sartu zen gizona aurretik beheko tabernan; freskagarri bila segur aski. Eta etorri zitzaizkidan bat batean gogora haurra nintzela Hernaniko amaren familian entzundakoak. Oraindik nor nor zen ez nekiela, noski, baina beti ziran orduan ere maliziak gehien zabaltzen zirenak, gurpil azkarrena zutenak, eta haurren irudimenean errazen tratatzen zirenak. Hau zergatik zen, edo den, ez dakit. Baina orduan sortutako irudiak atxeki ninduten barrutik, fitxa dorpeki alderdi txarretik zintzilikatzen den bezala. Haurtzaroko lehen zirrara handi hauek kautela luzeak ernaltzen baitituzte batzutan, eta garaunean gelaune itxiak sortzen, eta airea pozointzen. Orain Egin bibliotekako "Canto en lo mio" liburua jaso dudanean; "De norte a sur" eta "Sin lengua", eta beste poema askoren artean "Canto a Lizardi", eta, azkenik "El retorno" irakurri ditudanen argiz piztu zait (zahartzaroan aurrera dagoeneko!) denok egin behar izan dugun haztamukako bidea, zorionez edo txarrez bidezidorrak halakoak suertatu direlako, eta batek ez daki zertarako den "ona" batzutan "hain txarra", eta zergatik gertatzen den alderantziz beste batzutan. Pentsatzen dut ahaleginak, bakoitzaren bilakaera leialak, direla egiatan kontzientzian onak edo txarrak. Eta "Gabriel Celayaren" barruan daukan Rafael Mugica Celaya hernaniarra, oso ongi daramala.